

ezker abertzalearen mugez

Abertzaleatasunaren haurtzaroa, zenbait gaitz bazaito ere, joana da. Eta haurtzaro batera joan dira, era berean, haurtzaroa barrena bizirik egon ohi diren amets urdinak eta mitoak. Zalantzarik ez dago honez: hastapenetako abertzaleatasun leun lerro hura, "ohitura garbi"tan, "aiton-semetasun orokor"etan eta "jede suhar"etan oartzuta, hila da erabat abertzale abertzale askorengan; eta orain haren gorputza ehortzi besterik ez zaigu falta.

Euskal Herriaren mina (Euskal Herriaren "etengabeko tema", oso egokiorri berriak J.J. Rekondok esaten zidan hitzez esateko) bihotzean iltzaturik daramaten abertzale ezkerterrek, gure herria, gure abertzaletasun bada, klasetan zatiturik ikusten dute. Marx-en erabizte gehienik, gizarte baketsu eta anaikor bat bilatzen bazuten ere, bere buruarekin liskarrean eta tirabiratan aritzen herri zaitu bat topatzen dute. Eta klase-zatiketa hori, noski, ez zaie axaileko dato iruditzen.

Eta izan ere, ez da axailekoa. Eta axailekoa ez delako sortu da euskal ezker abertzalea, indartsu eta areago indartzeko segurtantzian.

Gizarte mota guztietan gertatu da betidanik, oso aspaldidanik berederen, klase-zatiketa hori; eta are nabarmenago eta doiliorrago azaltzen da gaurko gizarte modernoetan. Ez Euskal Herrian bakarrik, esan beharrik ez dago; mundu guzti guztian baiziki.

Klaserik gabeko aberri leunarekiko desiluraketa honek, normala denez, atsekabea franco ekarri du abertzaleen multzoan; eta oraindik ere zeharo onarturik eta irentsiarik dagoenik esaterik ez dagoela dirudi. Oraindik ere, oso oker ez banago, Foruen garaian Euskal Herria halako paradisuaren izan zenik ez sinistea, gaizki ikusia dago zenbait aber-

tzalaren artean, halako birau zantarra edo bailitzan. Eta gauza bera, bide berezik, gure "ohitura garbiak", gure "noblezia orokorra" eta gure "fede gartsua", horien egia seguruak direla zailentzat jarzte.

Euskal arazoak, gaitzegeen artean batez ere, haurtzarotik eta chauvinismotik irten da. Eta gaur ezker abertzale garenok, ameskeria belaska horietan sinetsi gabe ere (eta ez dugu sinesten), askatasuna nahi dugu gure aberriarentzat; eta zinki eta bihotzez nahi.

Hauze da eskuindar abertzaleek inolaz ere konpreni ezin dezaketena.

Euskal Herria, beraz, beste edozein herri bezala, klasetan zatiturik dago; eta sakonki zatiturik gainera. Eta klase zatiketa horri dagokion interesez eta pentsamoldeen aurkaritza, hor dago; garbi ikusten dugu eguner.

Mundu osoan herrian eta klasetan zatiturik ikusten dugu; eta bi zatiketok elkar gurutzatzen dute. Nazio "hutsik" ere ez. Baina era berean, "klase" hutsik ez dago, eta klase-burruka "hutsik" ere ez.

Klase-zatiketa bere, eta oinarri, egiten ez duen abertzaleatasuna, klase nagusiaren morroin bihurtzen da; eta eskuindar, eta inperialismoaren duen sozialismoa, nazio nagusiaren morroin bihurtzen da; eta inperialismoaren menpeko izaten, eskuindarra ere bai. Bata eta bestea bihurtzen dira, ezinbestean, "ordenu sakratua"ren gerizatzaile; eta erreakzioaren sostenguz orno, itxuraz zemahi agertuagatik ere.

Kondairan gertatzen den fenomenoa, jakina, bakarra da; eta gaur Euskal Herriak, bere klasetan eta bere eskuideetan, jasaten duen zapalketa, bakarra da. Nahiz zapalketa hori, klaseen eta eskualdeen araberean gogorrago ala bigunago izan.

Fenomenoa argitu nahiz, gizon bakarraren ekintza ekonomiko eta sexualak bereztea, esate baterako, sailketa praktikoa bat baizik ez da. Linguistikan, bide baretik diakronia eta sinkronia bereziten diren bezala, Hizkuntza bakarra da, eta badakigu.

Mugaketa horren barruan, beraz, eta gure herria euskaldun gisa ukaturik eta klasetan zatiturik dagoenez, "bi zapalketa" mota jasaten dituela esan ohi dugu.

Euskal Herriko fenomenoa argitu nahian, etsaiek berek erakusten ditugute ongienik zapalketaren "bitasun" horren praktikotasuna.

Eskuindar inperialisten ustez, ez dago gure herrian klase zapalketarik; ez nazio-zapalketarik ere. Ez bata eta ez bestea, diotenez.

Eskuindar abertzaleen ustez, berriaz, egiazkoa da nazio-zapalketa; baina klase-zapalketaren arazoa, oso hanpatua omen dago. Lehenegoa sinesten dute, ez bigarrenean.

Ezkerter inperialisten ustez, hirugarrenekorik, nazio-zapalketarik ez dago gure herrian; eta "chauvinistek" sinesten omen dute horretan, eta ez beste inork. Hemen, diotenez, klase-arazo bat dago, eta kito. Lehenengo gezurra omen da.

Eta ezkerter abertzaleen ustez, azkenik, bi zapalketak dira egiazkoak, edo zapalketa berberaren bi izarriak; eta biei eman behar zaie erantzuna. Eskuindar abertzaleengandik urrunduz, klase-burruka eginez, ekonomia ere jarri nahi dute Euskal Herriaren eskuetan; eta ezkerter inperialisengandik urrunduz, berriaz, nazio-askatasuna ere eskatzen dute gure herriarentzat.

Jakina: eskema laukin eta xinple horretan ageri diren jar-jera-muturretan, kontraesanik badago. Zer da "ezkerter inperialista" bai? Zer da "eskuindar abertzalea"? eta abar. Noski, Eskuindarren aldare nagusia

Estatu ukiezina baldin bada, nola dei daiteke "ezkerter". Estatu burgesa besterik ez den instituzio nagusiaren defentsa? Gure herria bere zapalkuntzatik atera nahi bada, nola izan daiteke abertzalea: Euskal Herriari helerazi nahi gabe?

Eta hori guztia egia da.

Baina, hala ere, argi-iturri harrigarria da Euskadiko indar politikoak lau buru horien arabera inietza. Lau multzo nagusi dira, nabarmen; ez hiru, eta ez hamar. Aski du irakurleak berak sailketa bere buruz egitea.

"Uste dugu, beraz, euskal ezker abertzalean mugitzen garenok, gure arazoaren burruka-bikoiztasun praktikoa hori bere egiten ez dutenek, gainerako hiru multzo horietako batetan daudela, ukatzen badute ere; eta gure herriaren helburua lardakaztzen eta saltzen ere dutela.

Gure arazoa ez da, Santander-en edo Touraine-n bezala, klase-arazo "huts" bat; burgesia/langileria, alegia.

Era berean, baina hildo beretik, gure arazoa ez da: espainiarrek eta frantsesak alderdi batean, eta euskaldunak bestean.

Eta gauza berbera esan daiteke eta esan behar da, gure herri-arazoa aztertzean erabili ohi diren teoriak buruz. Klase-burruka kontutan hartzen ez duten teoriak eta autoreak, ez dira argiztaile gertatzen gure arazoan. Baina, berebat, nazio-arazoa kontutan hartzen ez duten teoriak eta autoreak, oso famatu baldin badira ere, desbatazaile eta alienatzaile gertatzen dira euskal arazo konpondu edo argitu nahi izatean. Teoria eta autore horiek gurea ez den hiru multzo horietako batetan kokatzen direlako.

Lau gune edo politika-multzo eskematiko horien artean badaude elkar-lotura eta eragin dialektikoak. Noski Baina ez ditugu gaurko hontan aipatuko.

TXILLARDEGI



un patrón socialista

ENBATA

Existe en Sara un lugar de vacaciones creado en 1977, por la Federación Leo-Lagrange, ligada al Partido Socialista francés. Ese lugar puede acoger a 250 veraneantes y tiene de 11 a 20 empleados, según la época. Cuando la presentación del proyecto en julio de 1977, Enbata (número 412) había ya adelantado sus reservas a las repercusiones de tal implantación. Estas aprehensiones han resultado exactas.

Mientras que el personal en su mayoría es de Sara, el abastecimiento de alimentos para el centro se hace fuera. Las únicas repercusiones económicas para el Cantón, que este centro supone, es la venta de periódicos, recuerdos y tabaco.

En el plan de la diversión, las iniciativas son frenadas por un uniformismo férreo decidido desde París. Así un director "nacional" ha reprochado a un animador porque hablaba demasiado del País Vasco, y no suficiente de Leo-Lagrange!

Pero el problema principal viene de la dirección local: el antiguo responsable del centro M. Da Rocha, llamado hace 8 meses para más altas funciones, ha logrado hacer nombrar en su lugar a un primo suyo. A pesar de su ascenso, él ocupa siempre su apartamento de funciones y se considera como el "patrón".

Habiéndose disfrazado de este título, espera reinar en adelante como dueño absoluto. Ha tomado dos medidas de despido contra empleados bastante dóciles, y ha amenazado a otros con despedirlos. Uno de estos se ha permitido hacerle notar la incompatibilidad entre sus métodos y sus adhesiones.

al PS: "No es necesario confundir trabajo y socialismo" ha explicado en seguida.

El personal, seguro de sus derechos y decidido a acabar de una vez con este impostor, ha llevado el caso a la opinión pública.

el pueblo vasco asegura democráticamente las elecciones de los «terroristas» de eta

EUSKALDUNAK

A continuación, en las columnas de Euskaldunak, intentamos explicar el verdadero sentido de la lucha de los vascos, lucha que más de un representante de la prensa burguesa no ha querido comprender o ha querido adular.

Sin embargo, el proceso de Burgos y su repercusión mundial, hizo comprender a la opinión mundial que la lucha de los vascos no era solamente antifranquista.

Nosotros hemos intentado explicar más de una vez, que la lucha de ETA no tenía nada que ver con los miembros de Fracciones Rojas Armadas alemanas o con las Brigadas Rojas de Italia, ha lucha de los vascos es una lucha específica contra el imperialismo franco-español para obtener la soberanía nacional.

Es por esta razón por la que el Pueblo Vasco rehusó unánimemente, democráticamente el referéndum del 6 de Diciembre de 1978, pues la nueva Constitución española no respetaba los derechos del Pueblo Vasco.

Esta vez, los resultados de las elecciones legislativas del 1 de marzo son todavía más claras.

ipar euskal herriaren autonomiaz

HERRIA

Manex GOYHENETCHE

"Euskaldun abertzale sozialistek autonomia galdue xuxena bainan haundixkoegia" dela zion M.P.-ek joan den astean.

Nik uste dut orain dela denbora edo garaia zerbait urratsen finaketa bihar Ipar Euskal Herriak ukanen duen autonomiarri buruz. Ikus nola abertzale andana bat Hego aldeko hauteskudetarak ataratu den: 21 eta horietatik 5 abertzale sozialistak ez baita baiere gaizki.

Hego aldean egin dena zergatik ez litake egun batez hemen ere? Lehen pausu batez Iparaldearen beregintasuna, bigarren batez Hegoaldearekiko nolabaiteko lotura bat eman bezala baita artzain laborarien bizipiderik segurena.

Zer munduan zehar gaur egun zer dute gehiegien eskatzen jendeak baita ere noiztenka bideratzen? Berengintasuna. Hortik dabiltza Flamarandarrak, Galesak, Irlandesak, Afrika-ko herrialdeak.

Beraz guk ere Pariseko handi mandiler giderrak kendurik har ditzaugun eskutan gure diren eskubiak; gure buruaren eta bizipidearen jabe izan gaiten.

no es casualidad

EL IMPARCIAL
Sección Las Brujas

Eso me dice mi "meiga" la del Norte. No es casualidad que el último inspector de policía asesinado

en Vitoria perteneciese, como otros tres caídos anteriormente, también en el País Vasco, a los colaboradores del almirante Carrero en el SECED o Servicio Central de Documentación e Información. Y no es casualidad porque los de la ETA conocen bien a sus víctimas y sus objetivos. Eso no es casualidad, pero ¿cómo tienen los de la ETA tantas listas y datos?

treinta mil toneladas de petróleo contaminan cada trimestre las costas gallegas

CRASH

Por si fuera poco, unos estudios realizados en estas costas gallegas, demuestran que diariamente se contaminan las aguas del Atlántico gallego con una cantidad de más de dos millones de barriles de petróleo que son lanzados por los buques petrolíferos, para limpiar sus fondos, al paso por Galicia.

Unos cincuenta barcos petrolíferos pasan diariamente por las aguas gallegas, camino casi siempre de Rotterdam. A su vuelta, estos barcos limpian fondos, depositando allí los residuos petrolíferos, que suponen cerca de tres millones de toneladas de petróleo durante tres meses, o lo que es igual el 30 por ciento del consumo nacional del petróleo durante el mismo tiempo.

¿Qué se hace para remediar esta situación? De seguir así, en poco tiempo la riqueza pesquera y marisquera quedará reducida a nada.

ahí va nuestra mano

EL PAIS
"Tribuna Libre"
Marcos Vizzaya

Me pregunto, ante tanto fariseísmo, qué caminos le quedan a un partido como el Nacionalista Vasco, que con la paz y el diálogo por toda arma va a las más diversas instancias de poder a plantear soluciones conciliadoras, solidarias, políticas y justas para levantar a Euskadi. Para asegurar su supervivencia como pueblo, y no recibe como respuesta más que vejaciones, incompreensiones, ataques fulminantes y negativas rotundas.

No hay que recordar a nadie el calvario que padeció el Partido Nacionalista Vasco en los debates constitucionales, en los que UCD rompió, por cinco veces consecutivas, sus compromisos. A nadie se le oculta que la vía formal que planteó el Partido Nacionalista Vasco en sus enmiendas a la Constitución (disposición adicional) fue rechazada aún cuando era una oportunidad histórica para empezar a curar las heridas abiertas que aún tiene el pueblo vasco.

Todo el mundo sabe que no sólo no devuelven a Guipúzcoa y Vizcaya sus conciertos económicos, sino que existe el peligro inminente de que los arribaten a Alava y Navarra. Nadie desconoce la cicatería de UCD para con el Decreto de Bilingüismo o su rancanería a la hora de traspasar facultades al Consejo General Vasco, o su incapaz torpeza al intentar solucionar los problemas de nuestro pueblo con medidas policiales, no generando otra cosa más que radicalismo y exacerbando aún más los ánimos, como se ha comprobado en las pasadas elecciones.